

EUSKARA. Euskal Herrian Euskaraz-ek mobilizazio ugari antolatu ditu egunotan Euskal Herriko hiri eta herrietan

Herriz herri eskubideen alde borrokatuz

Euskalgintzaren kriminalizazioa, euskararen egoera eta hizkuntzaren estatus juridikoa salatu dituzte herriz herri



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS
Gasteizen, Posta etxean egin zuten elkarretaraztea, herenegun.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS
Mobilizazioak ekimen ikusgarriekin osatu dituzte. Goian, Bilboko.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS
Bergaran kalejiran joan ziren EHEren deialdiari erantzun ziotenak.

kiagoetan: *PP-PSOE euskararen etsai; Esparru juridikoa gaindituz, ofizialtasuna eskuratu; Ofizialtasuna orain...*

Mobilizazioak, hainbat lekutan, ohiko manifestazio edo kontzentrazioak baino gehiago izan ziren. Hala, ostegunean egindako ekitaldi gehienak hitzaldiak izan ziren —Errenterian eta Gernikan, esate baterako—; bestetik, Bilbon ekintza ikusgarria ere antolatu zuen EHEk. Izan ere, 15 lagun Areatzako zubitik eskegi ziren, ahoa Frantziako eta Espainiako banderekin estaliak zituztela eta peto moduko kartelekin.

Arazoaren muina, esparru juridikoa

Protestaldi horietako asko jai giroan egin baziren ere, aldarrikapen garrantzitsuak plazaratu nahi izan zituen EHEk horien bitartez. Besteak beste, hauek izan zituzten salaketa horien jomugan: euskararen zapalkuntza, hezkuntza eredu gabeziak, goi mailako hezkuntzan euskarak duen egoera larria, administrazioen konpromiso falta, euskalgintzako eragileen kriminalizazioa, Unescok Iparraldean euskararen egoerari buruz esandakoa eta Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika. Eskaerei dagokienez, berriz, bi eskaera: herritarren hizkuntza eskubideen errespetua eta ofizialtasuna Euskal Herri osorako.

«Euskal Herrian gaur egun ere euskara zapalduta dagoela agerikoa da. Berezko hizkuntza bakarra izanik, bigarren mailan dago, eta euskaldunoi dagozkigun hizkuntza eskubideak sistematikoki bortxatzen zaizkigu», adierazi du EHEk, mobilizazio horien gutzietan arazoia oharrean. EHEren arabera, gainera, euskararen egoera azaltzen duen «arrazoi nagusia» Euskal Herria zatitzen duen esparru juridiko «inposatua» da.

Manifestazio eta elkarretarazteak oso jendetsuak ez ziren izan, baina mobilizazio asko antolatu du EHEk, eta guztara dezenteko jende kopurua mugiarazi du. Besteak beste, Arrasaten 60 lagun elkartu ziren; Eibarren, 40; Hernanin, 25; Donostian, 40; Bilbon, 60; Berriatuan, 50; Sopelan, 40; Arrosadian, 15; Burlatan, 50; Gasteizen, 25; Laudion, 30; Aretxabaletan, 15; Barañainen, 50; Sorluzen, 10; Bergaran, 30; eta Andoainen, 30.

Eider Goenaga | DONOSTIA

Ostegunean hasi eta atzo bitartean, Euskal Herrian Euskaraz taldeak (EHE) mobilizazio eta ekimen ugari antolatu ditu Euskal Herriko herri eta hirietan: Errenterian, Donostian eta Gernikan; Bilbon, Arrasaten eta Eibarren; Hernanin, Sopelan eta Iruñean; Gasteizen, Burlatan eta Laudion; Barañainen, Sorluzen eta Bergaran... Helburua: euskararen ofizialtasunaren aldeko borroka kalera ateratzea, eta hizkuntza eskubideen aldeko aldarria herritarrei gerturatzea.

Batzuk manifestazio moduan, besteak elkarretarazteetan edo ekintza deigarrietan...: leku askotan ikusi ahal izan dituzte herritarrek *Hizkuntza eskubideen alde borrokatuz, ofizialtasuna eskuratu* zioten pankartak. Horiez gain, baina, beste hainbat aldarrikapen ere kaleratu dituzte, pankarta txi-